



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

EZ-OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2017IPLE0008

Eguna: 2017-06-30

Ordua: 13:30 – 14:20

Tokia: Areto nagusia

Bertaratuak

| | |
|--------------------------------|-----------------------|
| - Zorione Etxezarraga Ortuondo | EAJ-PNV |
| - Juan Martin Arregui Sagües | EAJ-PNV |
| - Ramón Aranzasti Loyarte | EAJ-PNV |
| - Olaia Pastoriza Santos | EAJ-PNV |
| - Nerea Zusberro Alberro | EAJ-PNV |
| - Urkiri Salaberria Gracia | EAJ-PNV |
| - Andoni Gartzia Arruabarrena | EHbildu |
| - Ione Olatziregi Mendiorotz | EHbildu |
| - Iker Goñi Salaberria | EHbildu |
| - Mikel Durán Gonzalo | Euskadiko Sozialistak |

Bertaratu ez direnak

| | |
|---------------------------------------|---------|
| - Ander Goicoechea Ocariz | EHbildu |
| - Ainara Vázquez Martínez | EHbildu |
| - M ^a Teresa Bernal Monroy | EHbildu |

Idazkaria

- Kontxi Urdanpilleta Santamaría

Aztergaiak

1.- Astigarragako desanexioaren 30. urtemugaren ekitaldia.

Esan-eginak eta erabakiak

Udal osoko bilkura berezira bertaraturako zinegotzi, zinegotzi-ohi, langile eta bizilagunei agurtu eta honako hitz hauek eskaini dizkie alkateak:

La alcaldesa saluda y se dirige de la siguiente manera a las/los concejales/es, ex-concejales/es, trabajadoras/es y vecinas/os asistentes al pleno municipal extraordinario:

“Gaur, hemen, duela 30 urte ospatu zen gobernu eraketa hura gogoratu nahi dugu.

44 urtez hiriburuaren auzo izatera behartua izan zen Astigarragak bere gobernua aukeratu ahal izan zuen. Herria egituratzeko eta osatzeko ezinbesteko tresna izango zena.

Garai hartan egoera ekonomikoa, soziala eta politikoa benetan zen zaila. Diktaduraren eta



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

demokraziaren arteko transizioa hasi berri. Ez genekien elkarrekin, desberdinon artean, nola bizi.

Estatuan lehen hauteskunde demokratikoak 77an izan arren 40 urteko diktadurak elkarbizitza zartatu zigun.

Ez zen erraza herrigintzan konpromezua hartzeko pausoa ematea. Inorentzako: hilketak, atxiloketak, sekuestroak, torturak, bizkarzain beharra, jazarpena ...

Giza eskubideen urraketa asko izan da azken 30 urteetan: bizitzaren eskubidea urratu da, iritzi propioa libreki azaltzeko eskubidea, ondasun eskubidea, duintasun eskubidea, askatasun eskubidea, etiketarik gabe bizitzeko eskubidea...

Alderdi politiko batean sartu, hauteskunde batzutan izena eman, zinegotzi aukeratua izan eta herrian norberaren burua nabarmendu... hemen gaudenok, astigarragako zerrendetan aurkeztu eta zinegotzi izan garen guztiok eman dugu pauso hori.

Herriaren alde. Bakoitzak bere ideiak, bere ikuspegia, bere proiektua defendatuz.

Hori da demokrazia: desberdintasunetik, errespetotik herriaren alde lan egin; kritika egin behar izan denean kritika eginez, elkarlana beharrezkoa izan denean elkarri eskua luzatuz.

Azken hau hain zuzen ere, elkarlana, izan zen Astigarragako lehen korporazioak behar izan zuena herria egituratzeko. Herri Batasunaren lehen gobernu hari, EAK eta EAJ-k laguntza eskeini zioten, eta desberdinatasunak alde batera utzita, herria egituratzen hasi zen.

Esan dudan bezala, erronkaz beteriko garai latz eta hartan, eskertzekoa da lehen korporazio hura eratu zen plenoan izan ziren interbentzioen doinua”.

Jarraian lehen bilkura hartako aktaren zati esanguratsuenak irakurri ditu alkateak, hala nola, udal hura zein alderdik osatzen zuten, bakoitzaren zinegotziak zeintzuk ziren, udala nola eratu zen, eratu ondoren Antton Arka eta Bixente Arrizabalaga zinegotziak esandako lehen hitzak, alkate-hautagaien zerrenda, bozketa eta emaitza, hots, Antton Arka izendatu zela lehen alkatea, hautetsietan gehien botoak lortu zituelako. Halaber, lehendabiziko alkatea aukeratu ondorengo bi diskurtso irakurri ditu, Arka jaunarena eta Juan Martín Arregi jaunarena.

Akta hau , irakurtzearen arrazoiak ere eman ditu, hots, deigarria egin zaiola hain desberdinak ziren eta alderdi bezala gaizki eramaten zirenak, batera lana egin izana.

A continuación, la alcaldesa lee las partes más significativas del acta de aquella sesión, como los partidos que formaron aquella corporación, quiénes eran las/los concejales/es de cada uno de ellos, cómo se constituyó el primer ayuntamiento, cuáles fueron las primeras palabras pronunciadas por los concejales Antton Arka y Bixente Arrizabalaga tras la constitución, la lista de candidatos a alcalde, la votación y el resultado, esto es, la proclamación de Antton Arka como primer alcalde de Astigarraga, por ser el cargo electo que obtuvo un mayor número de votos. También lee dos discursos posteriores a la elección del alcalde, pronunciados en su momento por los señores Arka y Juan Martín Arregi.

Expone a continuación las razones que le han llevado a leer este acta, señalando que le llama la atención que dos partidos tan diferentes y que se llevaban mal trabajarán de manera conjunta.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

Antton Akta – Astigarraga lehen alkatea – hitza hartu eta adierazi du desanexiotik Astigarragak 8 alkate eta 88 zinegotzi izan dituela, eta gogora ekarri ditu lehen legealdian zinegotzi izan eta egun gure artean ez daudenak, hots, Martín “Zaharra” eta Martín Arregi. Azaldu du lehendabiziko legealdi hartatik aipagarriena dela denek lanerako prest zeudela eta ideia politiko desberdinak eduki arren batera egiten zutela lan, abertzaletasuna zutela hildo eta demokraziaren oinarriak jarri zirela. Era berean komentatu du alderdi politiko guztiek zutela batzorde batetako ordezkari eta alkatetza bere taldearena izan arren, EAJ-PNV alderdiko babesa ezinbestekotzak hartu du. Halaber, udal-langileek egin zuten lan guztia goraiatu du, horietako batzuk gogora ekarriz.

Jarrain Bixente Arrizabalagak – 1. legealdiko zinegotzi eta Astigarragako alkate-ohiak – hartu du hitza eta adierazi du 8 urtez alkate izan dela eta 11 urtez zinegotzi. Gaineratu du momentu latzak izan zirela (hilketak, bahiketak...) eta talde batzuk sufrimendua barneratzen zuten bitartean, beste batek babestu egiten zuela. Momentu horretan Andoni zinegotziak horretarako momentua ez dela adierazi dio.

Bukatzeko Arrizabalaga jaunak adierazi du, elkarbizitza urratu zela, eta berriro eraiki beharra dagoela, bere horretarako prest egonik.

Arrizabalaga jaunaren partehartzea bukatu ondoren, alkateak hartu du berriro hitza, eta esan ondoren bakoitzak bere iritzia edukitzeko eskubidea duela eta demokrazia desberdinen arteko elkarbizitza dela, adierazi du begiratu beharrekoa dela herriak aurrera nola egin duen.

Bukatzeko eskerrak eman dizkie herrigintzan dihardun duten guztiei, eta horretarako banan-banan deitu ditu 30 urte hauetan zinegotzi izandako guztiak eta oroigarri bana banatu die. Halaber, bertaratutako udal-langileei ere oroigarri bana eman die.

Toma la palabra Antton Arka, primer alcalde de Astigarraga, para señalar que desde la desanexión Astigarraga ha tenido 8 alcaldesas/alcaldes y 88 concejales/es, recordando a Martín “Zaharra” y a Martín Arregi, dos personas que fueron concejales en la primera legislatura y que ya no están entre nosotros/as. Señala que de aquella primera legislatura lo más destacable fue que todas y todos estaban dispuestas/os a trabajar, y que pese a tener ideas diferentes trabajaban de manera conjunta, con la idea de hacer país y con el objetivo de sentar las bases de la democracia. Así mismo comenta que todos los partidos políticos tenían alguna comisión a su cargo, y que, siendo la alcaldía de su grupo, el apoyo de EAJ-PNV fue imprescindible. De la misma manera destaca la labor realizada por las/los trabajadoras/es municipales, recordando a algunas/os de ellas/os.

A continuación toma la palabra Bixente Arrizabalaga, concejal en la primera legislatura y exalcalde de Astigarraga, señalando que ha sido alcalde 8 años y concejal 11 años. Añade que hubo momentos duros, con asesinatos, secuestros y demás, y que, mientras algunos grupos interiorizaban el sufrimiento, había un grupo que lo apoyaba. En ese momento el concejal Andoni le indica que no es momento para esas declaraciones.

Finalmente el señor Arrizabalaga señala que la convivencia se rompió y que hay que volver a construirla, ofreciéndose para esa labor.

Tras finalizar la intervención del señor Arrizabalaga, la alcaldesa vuelve a tomar la palabra, y tras señalar que cada cual tiene derecho a expresar su opinión y que la democracia consiste en convivir entre diferentes, añade que lo que hay que destacar son los avances conseguidos por el pueblo.

Para finalizar, da las gracias a todas las personas que han trabajado para el pueblo, y llama una por una a todos/as los/las concejales de estos 30 años, entregando un recordatorio del acto a cada uno. Así mismo, entrega un



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

recordatorio a cada uno/a de los/las
trabajadores/as municipales asistentes al pleno.

Bilera 14:20ean amaitutzat eman da, eta esandakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2017ko ekainaren 30ean.

Kontxi Urdampilleta Santamaría
Ordezko idazkaria